

TTAKUN (H)ERRENKA

Sautrela, hezibide sentimental bat

Poligrafoa gora eta behera ari ginela iritsi zaigu *Sautrela* kenduko dutelako albiste aski penagarria. Zehaztapenak etorri dira gero, saioa 2013an itzul “daitekeela” entzun dugu. Posible izateagatik, ia dena da posible. Ez ditzagun ahantz, *Sautrela* bezala poligrafo bidezko telebista eredutik aldentzen ziren *Posdata* eta *Zinemateka* desagertuak, edo beti kolokan ibiltzen den Orain saioa. Bai, kulturzaleok ere zergak ordaintzen ditugu zintzo-zintzoki, astean telebista ordutxo batzuk merezi izateko lain bai behintzat. Ez dugu sobera eskatzen; konforma errazegiak gara, eiki.

Nire belaunaldiko literaturzaleontzat *Sautrela* izan da, ziur aski, euskal literaturak medioetan izan duen erreferente behinena. Niretzat, bederen, hala izan zen. Nire hezibide literarioaren —eta hortaz, sentimentalaren— puska handi samarra hartzen du *Sautrelak*. Ondo gogoan dut nola ikusi nuen behin Juan Gartzia, *Godoten esperoan* itzuli eta argitaratu berritan, Samuel Becketten mundu berezi hari buruzko azalpenak ematen. Uda hartan irakurri nituen irlandarraren antzerki obra ezagunenak, eta handik egin nuen Eugène Ionesco-rakoa. Hamar urte beranduago, masterreko amaierako lan gisa, Beckett buruzko tesina aurkeztuko nuen ia 600 kilometro urrunago, Bartzelonan. Hilabete batzuen buruan, berriz, Reading-o Samuel Beckett fundazioko liburutegiko apal batean topatuko nuen Gartziaren itzulpena, estreinakoz *Sautrelan* ikusitako hura, 1.000 kilometro urrun ordukoan.

Euskal Herri zabalean apenas dugu espaziorik literatura unibertsalaz hitz egiteko euskaraz, eta *Sautrela* zen azkeneko gotorlekue-tako bat. Literatur saio gutxik hitz egingo zuten halako begirunez “beste” literaturez, txokokeria txepelez libro; *Sautrela*, euskal literaturari buruzko programa baino,

MARC CAMPÁ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padrón

literaturari buruzkoa bai-zen. Gao Xingjian eta José Saramago nobel saridunak, Antonio Tabucchi, Marie Darrieussecq, Quim Monzó, Antonio Lobo Antunes, Enrique Vila-Matas, Pavel Kohout, Ismael Kadaré, *Sautrelatik* igaro dira. Baina ondo irakatsi digu *Sautrelak*, halaber, nortzuk izan ziren

James Joyce, Franz Kafka, Italo Calvino, Anton Txekhov, Augusto Monterroso, Simone de Beauvoir, Truman Capote, J. M. Coetzee, Marguerite Duras, Jorge Luis Borges, Jack Kerouac.

Nire kideetako ugari lan egin dute saioan eta ausartuko nintzateke esatera haientzat ere eskola aparta izan dela; atera kontuak, Eider Rodriguez, Edorta Jimenez, Kirmen Uribe, Jon Benito, Lander Garro dira handik igaro direnetako batzuk. Ia denboraldi guztietako zuzendari eta aurkezlea, Hasier Etxeberria, aipatzeke utzi gabe, noski.

Baina literaturaz hitz egiteaz aparte, *Sautrela* bera ere, harribitxi izatera ailegatzen zen maiz. Errealizazio ezin finagoarekin, musika bero bezain ederrarekin, irakurketa zehatz eta zainduekin, nekez aurkitzen ahal zen halako mailako literatur saiorik inguruotan. Eta hori guztia aurrekontu apal-apalarekin, ezagun denez. Baiki, itzelezko lana egin dute, orobat, errealizadore, kameralari eta enparauek.

Ez dakit zelako audientzia emaitzak izango zituen. Jakin badakit, ordea, inongo audiometrok ezingo duela kalkulatu arestian aipatutakoen balioa, ez eta Pello Lizarralde, Josu Landa, Anton Garikano, Lourdes Oñederra, Xabier Olarra, Ur Apalategi, Koro Navarro, Amaia Lasa, Joxanton Artze, Itxaro Borda, besteren artean, literaturaz hitz egiten ikustearena. Ez dezagun, ez dezaten, ahantz: badi-ra egon telebista-aparatura atxikitzen ez diren neurgailuak. Adiorik ez. ■



«
Nire belaunaldiko literaturzaleontzat
Sautrela izan da, ziur aski, euskal
literaturak medioetan izan duen
erreferente behinena. Niretzat,
bederen, hala izan zen
»